


Euskal AEko eraikuntza-kostuak %0,6 jaitsi ziren 2019ko maiatzean aurreko hilaren aldean

2018ko maiatzaren aldean %2,1 gehitu ziren kostuak

2019ko maiatzean Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,6 gutxitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %2,1 gehitu, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua lehengoan da (%0,0); lehengaien kostuak %0,8 murriztu dira.

Etxegintza %0,7 jaitsi da maiatzean; Obra Zibila, %1,3. Urte artean, Etxegintzan lehengaien kostuak %1,9 gehitu dira eta Obra Zibilean %2,3.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2019 maiatza 2018koaren aldean) prezio-hazkunderik handienak: *Energia elektrikoa eta gasa* (%6,1), *Petrolio finzia* (%4,3) eta *Industria kimikoa* (%3,1). Alderantzizko norabidean, lehengaietan murrizketa handienekin edo hazkunde txikienekin azken hamabi hiletan: *Metalurgia*, behera %2,7 egin duena; *Kautxu eta plastikoa*, %0,3ko igoerarekin; eta *Makineria*, %0,9ko igoerarekin.

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2019ko Maiatza

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	104,9	-0,6	2,1	1,9
Eraikinak	104,8	-0,6	2,0	1,7
Obra zibila	105,5	-1,0	2,3	2,5
LEHENGAI	104,5	-0,8	2,0	1,8
Eraikinak	104,3	-0,7	1,9	1,6
Obra zibila	105,3	-1,3	2,3	2,6
LAN-ESKUA	106,2	0,0	2,3	2,3

Oinarria 2015=100
 (p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62